



EUSKARA ZERBITZUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA 2026KO DEIALDIA EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO

1.- XEDEA

Deialdi honen helburua da 2025-2026 ikasturtean helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten zumaia orori dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Laguntza hauek norgehiagoka bidez emango dira, eta emateko prozedura Zumaiako Udalaren Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

2.- ONURADUNAK

2025-2026 ikasturtean helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten zumaia orori izango dira dirulaguntza hauen onuradun, betiere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Ikasturte hasieran, euskara ikasi nahi duten herritar guztiek aukera izan dezaten, babesgabetasun egoeran dauden herritarrei matrikula kopuruaren zati bat Udalak ordain diezaieke, betiere egoera horri buruz arloko teknikariak aurrez egindako balorazioan oinarrituz.

3.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Deialdi honetako eskabide ereduaren arabera aurkeztu beharko dira Udalaren Erregistro Orokorrean edo telematikoki www.zumaia.eus egoitza elektronikoaren erregistroaren bidez.

Eskaberak **ekainaren 30etik uztailaren 30era** bitarteko epean aurkeztu beharko dira **lehenengo deialdian** (urritik ekainerako ikastaroenak) eta **irailaren 7tik urriaren 9ra** bitartean **bigarren deialdian** (udako ikastaroenak).

Eskabideak aurkezteak deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskabideak deialdi honetako eranskinetako eredu normalizatuaren bidez egingo dira. Horrekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Ikastaroa ordaindu izanaren egiaztatagiria.



- b) Egindako ikastaroaren maila eta asistentzia % 80tik gorakoa izan dela ziurtatzen duen agiria, euskaltegiak edo ikasketa zentroak berak emana.
- c) HABEren dirulaguntzen 2026ko deialdian eskaera aurkeztu izanaren agiria (maila egiaztatu edo dagokion atalasea gainditu duten ikasleek bakarrik).

Zumaiako Udalak, NISAren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagokion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Zumaiako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu dirulaguntza hauek eskuratu ahal izateko, NISAren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

- NANA edo agiri baliokidea.
- Zerga betebeharrak beteak dituela.
- Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.
- Lan bizitzaren txostena (lanik gabe egon direnean bakarrik)

Zumaiako Udalak ofizioz egiaztatuko du harekiko betebeharrak betetzen direla. Ezin bada datuen artekaritza plataformaren bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

5.- AURREKONTUKO DIRU HORNIDURA

Deialdi honetako dirulaguntzetarako 16.000,00 € daude 1 0200.481.335.10.01 2026 (105) kontu sailean. Sail berean errotuluetarako izendatutako dirua erabili ahal izango da, betiere aurrez agortu ez bada.

6.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.

2025eko urritik 2026ko irailera bitartean egindako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak lagunduko dira diruz: aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz



barnetegikoak

7.- ESKAERAK BALIOZTATU ETA LAGUNTZAK EMATEKO BALDINTZAK

Euskara Zerbitzuko teknikariek egiaztatuko dute eskatzaileek baldintza guztiak betetzen dituztela. Hau da:

- Egindako ikastaroan % 80ko asistentzia
- Egindako ikastaroa ordaindu izana
- Zumaian erroldatuta egotea ikastaroak irauten duen bitartean.
- Eskatzaileak betebeharrak eguneratuak dituela.

8.- EBAZPENA

Euskara zerbitziburua izango da instrukzioaren arduraduna eta, aurrez Euskara Batzordean txosten teknikoak aurkeztu eta gero, alkate dekretuz ebatziko da.

Guztia gehienez 6 hilabeteko epean egin beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

Aipatutako epea igaro eta gero, Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu gabe izango balu, erantzuna ezezkoa dela esan nahiko du horrek.

9.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

1. Ikastaroak irauten duen bitartean lanik gabe egon den ikaslearentzat ordaindutako matrikularen % 100 izango da laguntzaren zenbatekoa.
2. Gainerakoentzat ordaindutako matrikularen % 75 izango da laguntzaren zenbatekoa.

Bi epealditako ikastaroak bereiziko dira:

- a) Euskalduntze eta alfabetatzeko ikastaroak (2025eko urritik 2026ko ekainera): eskatzaile bakoitzari gehienez 600 euroko laguntza emango zaio.
- b) Udan egindako euskara ikastaroak (2026ko uztailetik irailera): eskatzaile bakoitzari gehienez 200 euroko laguntza emango zaio.

Barnetegien kasuan, diruz lagundu daitekeen gastua eskola orduen matrikularen zenbatekoari egokituko zaio; ez da laguntzarik emango mantenu eta ostatu gastuetarako.



Udalak dirulaguntzetan ordaindu beharreko kantitatea handiagoa bada aurrekontuan horretarako izendatutako kopurua baino, orduan banaketa proportzionala egingo da eskatzaile guztien artean.

Baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du aldetaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

10.- BATERAGARRITASUNA

Emango den dirulaguntza bateragarria izango da xede berarekin jaso daitekeen beste edozeinekin, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago laguntzen den xedearen guztirako kostuan. Horrelakoetan dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuz.

Zumaia Udalak eskubidea izango du eskatzaile bakoitzak emandako edozein datu beste administrazio publikoekin eratzeko, betiere deialdi honen xede den gaiari atxikita. Era berean, emandako dirulaguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrenda HABEra (Helduen Euskalduntze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) bidaliko da, dagokion datu basean dirulaguntza hauen berri jaso ahal izateko.

Ikasturtean zehar HABEren mailaren bat edo baliokideren bat egiaztatzen duten ikasleek, baldin eta oinarrien arabera dirulaguntza hori jasotzeko eskubidea badute, HABEk ikasturte horretan egingo duen deialdian parte hartu beharko dute eta agiri bidez egiaztatu. Zumaia Udalaren dirulaguntza HABEk emandakoaren osagarria izango da.

11.- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Banku transferentzia bidez egingo da dirulaguntzen ordainketa, onuradunaren titulartasuneko kontu batean. Dirulaguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren % 100 ordainduko da.

12. ARAUBIDEA ETA ERREKURTSOAK

Euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri berezietan (2022ko abuztuaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 163. zk.) xedatutakoari jarraituko zaio laguntza hauek emateko.

Oinarri horietan aurreikusi gabeko alderdi guztietan betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean); lege horren garapeneko erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 errege dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25ean argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean); Zumaia Udalaren



dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra (2020ko abuztuaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 151. zk.); eta 2024-2027 epealdiko Zumaiako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (2023ko abenduaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 243 zk.).

Interesdunek deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko deialdi hau onartu duen organo eskudunaren aurrean, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeakoaren berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

**EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA**

Interesduna:

Izen-abizenak		NAN-AIZ		Jaiotza data	
Helbidea		Herria		PK	
Sexua	Telefonoa		Helbide elektronikoa		
Emak. ☐ Giz. ☐ Ez-binarioa ☐					
Euskaltegiaren izena		Ikastaroa		Matrikularen kostua	
Lan egoera ikasturtean /					
Lanean, ikasten edo erretiroa hartuta ☐		Langabezian ☐ Zenbat denbora?			
Oharrak					

Banketxea (dirulaguntza sartzeko):

Banketxea	Kontu zenbakia (IBAN barne)																			
	E	S																		

NOLA JASO NAHI DITUZU ESKABIDE HONEN ERANTZUNAK (Telematikoki jaso nahi badituzu ziurtagiri digital bat beharko duzu(B@kq , FNMT...) eta telefono mugikor eta helbide elektronikoko eremuak bete behar dituzu.	Telematikoki ☐	Posta arruntez ☐
ESKAERA HONEN ERANTZUNA ELE BIETAN JASO NAHI DUT (Ezer adierazten ez bada, euskara hutsean egingo da)	☐	

☐ BAI, 2025/2026 ikasturtean euskara maila ofizial bat egiaztatu dut (edo B1 eta B2 mailetakoko atalasearen ebaluazioa euskaltegian gainditu) eta HABEren dirulaguntzen 2026ko deialdian eskaera aurkeztu dut. Gainditu edo egiaztatutako maila: ☐ A1 ☐ A2 ☐ B1 ☐ B2 ☐ C1 ☐ C2
☐ Ezin dut HABEren dirulaguntza jaso, ez dudalako 2025/2026 ikasturtean maila ofizialik egiaztatu, edo ikasitakoa baino maila apalagoa gainditu dudalako edo iaz jaso nuelako mailari zegokion laguntza (atalasea gainditzeagatik).

☐ Adierazten dut ez dudala debekurik dirulaguntza publikoak jasotzeko.



BITARTEKOTZAKO PLATAFORMATIK ESKATUKO DIREN ZERBITZUAK

Eskatzaileari informatzen zaio, Zumaiako Udalak bere dirulaguntza ordenantzan (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 151. zenbakia, 2020ko abuztuaren 11koa) eta euskara ikasteko dirulaguntzak emateko oinarri berezietan (2022ko abuztuaren 26ko GAO, 163. zk.) ezarritako baldintzen datuak zuzenean egiaztatuko dituela datuen arloko bitartekotzako plataformatik eta beste administrazioetatik. Hala ere, egiaztatze horri uko egiteko aukera izango du eskatzaileak. Kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- NAN edo agiri baliokidearen kontsulta
- Lan bizitzaren txostena (lanik gabe egon direnean bakarrik)
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Zerga betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

☐ Aurka nago eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut

Dirulaguntza eskatu ahal izateko, agiri hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:

- Matrikula ordaindu izanaren agiria
- Asistentzia ziurtagiria (gutxienez % 80)
- HABEren dirulaguntzen 2026ko deialdian eskaera aurkeztu izanaren agiria (maila egiaztatu edo dagokion atalasea gainditu duten ikasleek bakarrik)
- Hirugarrenen alta emateko agiria (eranskinean), banketxean sinatuta eta zigiluz jota, edota titulartasun ziurtagiria.

Zumaia, 20____ ko _____ (a)ren _____
(Eguna)

Sinadura
(izen-abizenak eta NAN-AIZ adierazita)



Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa	
Tratamenduaren Arduraduna	Zumaiako Udala Foruen plaza 1, 20750, Zumaia (Gipuzkoa) Datuak Babesteko Ordezkarria: dbo@zumaia.eus
Helburua	Udalaren eta haren mendeko erakundearen aurrekontu-, ekonomia- eta kontabilitate-jardunaren ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea.
Zilegitasuna	DBEDBLO 8.1 eta 8.2. artikulua: legeko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoak baliatzeagatik buruturiko datuen tratamendua.
Komunikazioen hartzailak	Zumaiako Udalak Zerga Administrazioari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta dagozkion administrazio publikoei jakinarazi ahal izango dizkie zure datuak, tratamendu honen esparruan aplikagarria delako legez hala ezartzen bada.
Eskubideak	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, transferitzeko eta mugatzeko eskubideak erabiltzeko eskubidea duzu, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazio bat aurkezteko ere.
Informazio gehigarria	Datuak babesteari buruzko informazio gehigarria eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuak babesteari buruzko atalean: https://zumaia.eus/eu/udala/datuen_babesa



Zumaiako Udala



2026EDIR0001

ERANSKINA

HIRUGARREN INTERESDUNARI ALTA EMATEA (agiri honen baliokidea da bankuaren titulartasun ziurtagiria)

HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

NAN/AIZ/IFZ

Izena eta bi abizenak

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Lurraldea

BANKUAREN DATUAK

BANKUA (IBAN kode eta guzti)

BULEGOA

KOD

KONTU ZENBAKIA

JABEA

Oharra: Kontuaren jabeak hirugarrena bera izan behar du.

Bankuaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

Hirugarren interesdunaren adostasuna

Sinadura

Udalaren onespena

Sinadura eta zigilua

Zumaian, 20____ ko _____(a)ren _____
(Eguna / Fecha)